

2023-2024 IKASTURTEAN UNIBERTSITATE-BEKA IZATEKO ESKATUTAKO GUTXIENEO KREDITUEI BURUZKO INFORMAZIOA (24. eta 25. artikulua)

| BEKARAKO ZENBATZEN DIREN ETA ORDAINTZEN DIREN KREDITUAK | BEKARAKO ZENBATZEN DITUZTEN BAINA ORDAINTZEN EZ DIREN KREDITUAK | GUTXIENEO KONTUAN HARTZEN EZ DIREN KREDITUAK ETA ORDAINTZEN EZ DIRENAK |
|--|---|---|
| 1. eta 2. matrikuletako kredituak Gradu/masterrera beharrezko prestakuntza-osagarriak | 3. eta 4. matrikuletako kredituak | Espezialitate bat baino gehiagoko irakasgai edo kredituak, ezta dagokion titulua eskuratzeko behar diren kopurutik gorakoak |
| | | Ikasturtean zehar amortizatuko diren hautazko irakasgaiei dagozkien kredituak |
| | | Baliozkotu, egokitu edo aitortu diren kredituak |

| IKASKETA MOTAK | BEKARAKO ESKATUTAKO KREDITUEN GUTXIENEOA | ESKATUTAKO KREDITUEN GUTXIENEOAREN SALBUESPENAK | ERAGINA OSAGAIETAN ETA KOBRATU BEHARREKO ZENBATEKOETAN |
|---|--|--|---|
| GRADUA EDO GOI-MAILAKO IKASKETAK | 60 kreditu | Unibertsitateko araudia: kreditu posible guztietan matrikulatzen da, unibertsitatearen araudiak matrikula daitekeen kreditu kopurua mugatzen duelako (unibertsitateak ziurtatu beharko du). Ez da salbuespen hori aplikatuko nahitaezko edo hautazko kredituak matrikulatzeko aukera bada. | 12 kredituko edo gutxiagoko matrikula: matrikularen osagaia baino ez dagokio. 12 kreditutik gorako eta 45 kreditu arteko matrikula: bekaren osagaien zenbatekoa % 50 murriztuko da, matrikularen osagaia izan ezik, oso-osorik ordainduko baita. 45 kreditutik gorako matrikula: dagozkion osagai guztien % 100 jasoko da. |
| | | Azken kredituak: ikasketak amaitzeko geratzen zaizkion kreditu guztietan matrikulatzen da, ikasturtean amortizatuko dituen hautazko kredituak (oraindik amortizatuta ez badaude ere) edo gradu amaierako lana izan ezik. | |
| | | Matrikula partziala: gutxienez 30 kreditu <ul style="list-style-type: none"> Ikasketak eta lan-jarduera bateragarri egiten ditu (lan-kontratuarekin justifikatu) Curriculumeko kanpoko praktiketako kredituak baliozkotzen edo aitortzen zaizkio (ikasketa-planean nahitaezkoak), eta horregatik ezin da 60 kreditutan matrikulatu. Kredituak baliozkotzen edo aitortzen zaizkio, Lanbide Heziketatik datorrelako. | |
| | | Ikasketa erdipresentzialak /on line*: gutxienez 30 kreditu *Ikasketa erdipresentzialetan ez dago egoitza osagairik 5.1.a) artikuluan jasotako salbuespena izan ezik | |
| URTE BATEKO MASTERRA | Kurtso osoa | <ul style="list-style-type: none"> Unibertsitateko araudiak edo ikasketa-planak kreditu-kopuru txikiagoa aurreikusten du urte horretarako, betiere gutxienez 30 kredituko matrikula egiten bada. Masterrean sartutako kredituren bat baliozkotu edo aitortu zaio, betiere matrikulatutako gutxienez 30 kreditutik gorakoa bada. | |
| 2 URTEKO MASTERRA | 1. urtea: 60 kreditu 2. urtea: gainerakoa | Masterra amaitzeko geratzen zaizkion kreditu guztietan matrikulatzen da | |
| IKASKETA GUZTIAK | | Eskatzaileak desgaitasuna = > % 65 du: irakastordua % 50eraino murriztu ditzake | Kredituen % 100ean matrikulatzen bada, osagaien zenbatekoak bikoiztu egingo dira. |